

ELKARTE

INFORMAZIO
ALDIZKARIA

33

E K A I N A
2 0 0 8

Euskal Autonomia Erkidegoko Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Konfederazio Koordinatzailea

Mendekotasunaren Legea
Giza eskubideak eta
gutxitasuna
Eskubide sexualak
ezgaitasun fisikoa
duten pertsonen



Gozoratu...

ARABA

Beato Tomás de Zumárraga, 96-98 behea
Tel. eta Faxa: 945 225 516
01009 VITORIA-GASTEIZ
e-mail: eginez@euskalnet.net
www.eginez.org

GIPUZKOA

Ondarreta pasealeku 5.ean
Tel.: 943 316 770 • Faxa: 943 316 379
20018 DONOSTIA
e-mail: elkartu@elkartu.org
www.elkartu.org

BIZKAIA

Blas Otero, 63 behea
Tel.: 94 405 36 66 • Faxa: 94 405 36 69
48014 BILBO
e-mail: fekoor@fekoor.com
www.fekoor.com

KONFEDERAZIOKO KIDE DIREN ELKARTEAK

GIPUZKOA

- **AGAEB**
Bizkarrezur bifidodunen Gipuzkoako elkarte.
- **AGAER**
Gaixotasun erreumatikoek erasandakoen Gipuzkoako elkarte.
- **AGE**
Gipuzkoako epilepsiaren elkarte.
- **ANAIDIA**
Gutxitasuna duten pertsonetikiko kristau senidetasuna.
- **ASPARGUI**
Gipuzkoako parkinson elkarte.
- **BIZI-BIDE**
Fibromialgia eta astenia kronikoaren Gipuzkoako elkarte.
- **Debabarreneko Gutxitu Fisikoak.**
- **LEZDI**
Lezoko gutxituen elkarte.

BIZKAIA

- **AUXILIA**
Gutxitu Fisikoaren Integrazioarako Elkarte.
- **ALCER**
Giltzurruneko gaixotasunen aurkako Elkarte.
- **FRATER**
Gaixo eta elbarrituen Kristau Fraternitatea.
- **HEMOFILIA**
- **Bizkaiko Gutxitu Fisikoen Gurasoen Elkarte.**
- **Barakaldoko Gutxitu Fisikoen Kolektiboa.**
- **BIZKEL**
Bizkaiko Medula Zaurituen Elkarte.
- **ASEBI**
Bizkaia elkarte Bizkarrezur Bifidoa eta Hidrocefalea.
- **ADEMBI**
Bizkaiko Esklerosi Anizkuneko Elkarte.
- **ARGIA**
Ostomizatuen Elkarte.
- **ASPANOVAS**
Bizkaiko haur onkologikoen gurasoen Elkarte.
- **A.C.C.U.**
Crohn eta Kolitis Ultzerosoaren Elkarte.
- **BIDARI**
Ermuako gutxitu fisikoen Elkarte.
- **ADELES**
Lupus Eritematoso delakoaren Elkarte.
- **BENE**
Bizkaiko Eritasun Neuromuskularren Elkarte.
- **Lea-Artibaiko Gutxitu Fisikoen Elkarte.**

ARABA

- **EGINAREN EGINEZ**
Arabako Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Elkarte.
- **A.E.F.E.**
Aiarako Gutxitu Fisikoen Elkarte.

Eusko Jaurlaritzako
Justizia, Lan eta Gizarte
Segurantzza Sailak
diruz, lagundutako
argitalpena.

Elkarte horiekin
harremanetan jarri nahi
baduzu, jo ezazu zure
probintziako
koordinadorara

a u r k i b i d e a

O r o k o r r a

1. Mendekotasunaren Legea legearen aplikazioaren azterketa	4
2. Batzar Nagusia	7
3. Gizarte Zerbitzuen Sistemaren Plan Estrategikoa Egiteko Bigarren Bilera Sektoriala	8
4. Giza Eskubideak eta Gutxitasuna	9
5. Eskubide Sozialen Egungo Egoerari Buruzko Jardunaldia	11
6. Babes publikoko etxebizitzak Legegintzako Nobedadeak	11

A r a b a

1. Gizarte lanari Buruzko I. Jardunaldia. Lanbidearen ikuspegi etikoa ...	13
2. Eskubide sexualak Ezgaitasun fisikoa duten Pertsonen	14
3. Errektore-Ordearekiko bilera	16
3. Elbarritasunaren Defentsa juridikoaren Ikuspegi berria	17
4. Vitoria-Gasteizko Eraikuntza-lanetako Segurtasuna	18
5. eginaren eginez elkarteak Vitoria-gasteizko gizarte Kontseiluan parte hartuko du	21

B i z k a i a

1. 200 pertsona inguru bildu dira FEKOORen I. Jardunaldian	22
2. FEKOOReko Berdintasunaren Batzordeak Berdintasuna 2007 Saria jaso du Bizkaiko Foru Aldundiaren eskutik	25
3. Euskadiko Slalom Txapelketa eta Espainiako Autonomia Erkidegoen arteko Boccia Txapelketa.....	27
4. Harrera ona izan dute FEKOOR-en on line prestakuntza-ikastaroek ...	29

G i p u z k o a

1. Gipuzkoako garraio publikoaren irisgarritasunari buruzko azterketa.....	30
2. Autobusak eraberritzeko eta modernizatzeko, eta geltokietan egokitzapenak egiteko laguntzak	33
3. Elkartze-mugimendua.....	34
4. Ordezkaritza-jarduera	35
5. Oporretarako programa	36

Mendekotasunaren Legea

legearen aplikazioaren azterketa

Mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzat, aurrerapen handia izan da Autonomia Pertsonala eta Laguntza Sustatzeko Legea onartzea eta, ondoren, garatzea; hau da, adina, gaixotasuna edo ezintasuna dela medio, hirugarren bat(zu)en laguntza edo eguneroko bizitzako oinarrizko ekintzak egiteko laguntza handia behar duten haientzat nahiz beren sendikoentzat.

Hona hemen legearen berritasunik garrantzitsuenak: batetik, bere baitan jaso diren zerbitzuak eta prestazioak "eskubide subjektibo" gisa eratzeta eta ez "graziazko eskubide" gisa; eta, bestetik, onuradunek parte hartzea beren beharrei egokitutako eskuhartze motak hautatzerakoan.

Alabaina, Legeak horiek eta beste alderdi positibo batzuk ekarri dituen arren, eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonen bizi-kalitateak zalantzarik gabe hobera egin badu ere, Mendekotasunarekiko Autonomia eta Laguntza Sistemaren aplikazioan eta garapenean sumatzen ari garen gabezien berri eman nahi dugu ELKARTEAN elkartetik.

Mendekotasunaren balorazioa

- Mendekotasun-egoeraren baloraziorako zerbitzuak gure erkidegoko herri-administrazioetatik kudeatu behar dira zuzen-zuzenean, entitate pribatuekin kontraturik egin

gabe. Baloraziorako galde-sortaren bidez (eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerena) eta eskatzailearen eta haren ingurunea zuzenean behatuz, zera eskatu nahi da: funtzio horrek zerbitzu publikoa izan behar duela eta, legeak agindu bezala, ez dadila inola ere zehar-kudeaketaz egin; beraz, inpartzialtasun, isilekotasun, profesionaltasun eta ebaluatzailearen prestaketa egokiaz egina izango dela bermatu behar da.

- Balorazio-eskaerei lehen baino azkarrago erantzuten bazaie ere, komenigarria izango litzateke denbora gutxiago pasatzea balorazio-eskaeraren eta mendekotasun-egoera aitortzen duen erabakiaren artean; horrez gain, dagozkien administrazio-helegiteen ebazpenak ere azkarrago eman beharko lirateke.
- Egiaztaturik gelditu da mendekotasunaren balorazio-baremoak ez duela beti ezintasun fisikoa duten pertsonen benetako egoera islatzen, hau da, hirugarren bat(zu)en ardura edo eguneroko bizitzako oinarrizko ekintzak egiteko laguntza handia behar duten haiena. Hala, egiaztaturik dago etxean laguntza teknikoak edo egokitzapenak erabiltzen badira, mendekotasun-mailaren balorazioa jaitsi egiten dela, autonomia pertsonalerako laguntza orokorraren beharra frogatu beharrean. Garrantzia handiko kontua da hau, mendekotasun-gradua eta -maila

egiaztatzeak erabakitzen baitu zerbitzuak eta prestazioak jasotzen noiz hasiko diren eta horiek zenbatekoak izango diren.

Zerbitzuak eta prestazioak

- Sarritan gertatu ohi da, nahiz eta mendekotasun-egoera egiaztatua izan eta horregatik dagozkion prestazio ekonomikoak eskuratzeko eskubidea izan –familia-esparruan zaintzeko prestazioak, batez ere–, praktikan inolako diru-kopururik ez jasotzea, honako arrazoi hauetako batengatik egindako murrizketak direla medio:
- Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen Autonomia Pertsonala eta Laguntza Sustatzeko Legeko beste prestazio ekonomikoekin bateragarritasuna.

- Hirugarren baten beharragatiko osagarria baldin badu: erabateko ezintasun iraunkorreko pentsioan, 18 urte baino gehiagoko eta % 75eko edo gehiagoko elbarritasun-gradua duen semearen/alabaren karguagatiko diru-laguntzan, zergarik ordaintzen ez duen baliaezintasunezko pentsioan eta LISMIren prestazio ekonomikoetan.
- Pertsona onuradunaren diru-sarrerak.

Beraz, prestazio ekonomikoaren gehienezko zenbatekoa handitu beharko litzateke, mendekotasun-egoeran dagoen inor ez dadin gelditua laguntza horietatik kanpo.

- Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa III. graduan baloratutako mendekotasun handiko pertsoneri baino ez zaie aitortzen, nahiz eta errealtatean I. eta II. graduan baloratutako pertsonak ere norbaiten laguntza behar izan, eguneroko bizitzako oinarritzko ekintzetan bizimodu autonomo bat eramateko. Halaber, beste zenbait kasutan, ez dira betetzen familia-esparruko zainketarako prestazio ekonomikoak eskuratzeko beharrezko baldintzak, eta, hala eta guztiz ere, ezin dute laguntza pertsonalerako prestaziorik eskatu, III. graduan baloratu gabe egoteagatik. Hori dela eta, bizimodu autonomo bat eramateko behar duten laguntzarik gabe gelditzen dira Bestalde, gomendagarria litzateke prestazio horiek hezkuntza eta lan-munduko sarbidera ez mugatzea, baizik eta eguneroko bizitzako oinarritzko jarduera guztietara zabaltzea. Horrenbestez, neurri horiek “autonomia pertsonalaren sutapenaren” ideia barne hartuko lukete eta ez soilik “mendekotasunarekiko arretaren” ideia. Eta, hain zuzen ere, horixe da gaur egungo Legearen testuak eta espirituak adierazten duena.



Legea mailaz maila aplikatzea

- Aurten, III. gradua, 1. eta 2. maila, eta II. Gradua, 2. maila, eman zaien pertsonak bakarrik izango dute Legearen mendekotasunagatiko prestazioetarako eskubidea. Beraz, onuradun potentzial askok, nahiz eta mendekotasun-balorazioa jaso, haien bizi-kalitatea hobetzeko aukerak denboran atzeratuta eta zapuztuta ikusi dituzte. Hori dela eta, epeak laburtu beharko lirateke, mendekotasun-egoeran dauden pertsona guztiei zerbitzuak eta prestazioak ahal den eperik laburrenean iritsarazteko.

Mendekotasun-egoeran dauden pertsonak ordezkatzen dituzten erakundeen parte-hartzea

- Gaur egun, hirugarren sektoreak zenbait partaidetza-organotan esku hartzen du. Hala ere, komenigarria litzateke autonomietako, foruetako eta tokiko erakundeak aitzindari izatea zenbait organoren sorreran. Hala, organo horiek Autonomiarako eta Mendekotasunaren Atentziorako Sistema hobetzeari buruz informatu, aholkatu eta proposamenak planteatuko litzukete. Era berean, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen ordezkarari diren erakundeek ere aktiboki hartuko lukete parte organo horietan.

Azken batean, Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonen Autonomia Pertsonala eta Laguntza Sustatzeko Legea eta horren garapen-arauak indarrean jartzea positiboa baldin bada ere, badira oraindik akatsak eta

desorekak. Horrenbestez, hirugarren baten laguntza edo laguntza handia behar duten pertsonak erabateko eta kalitateko arreta jasotzea eragozten dute, eta pertsona horiek eguneroko oinarrizko jarduerak egiteko arazoak dituzte.

Legeak berak aitortzen du badagoela aukera autonomia-erkidego bakoitzak Mendekotasuneko Autonomia eta Laguntza Sistema babesteko maila gehigarri bat finkatzeko. Beraz, gabeziak konpon daitezke, bai eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonen ematen zaien babesa areagotu ere. Horretarako, beharrezkoa da autonomia-erkidegoetako eta lurraldeetako erakundeak elkarren artean koordinatzea. Hala, lehen mailan kokatuko litzateke Euskadi gizarte-politiketan eta, bereziki, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen laguntzan.

Testuinguru horretan, ELKAR TEAN elkarteak ezintasunak dituzten pertsonen kolektiboaren eskubideak defendatzen aktiboki lanean jarraitzeko konpromisoa hartzen du, Euskadiko Autonomia Erkidegoko erakundeekin bat eginda, babes-mailarik altuena eta gainerako herritarren baldintza bereko bizi-kalitatea izan dezaten.



Batzar Nagusia

ELKARTEAN konfederazioak Batzar Nagusia egin zuen apirilaren 3an Donostian. **Fekoor, Eginaren eginez** eta **Elkartu** erakundeetako ordezkariak parte hartu zuten.



Azken batzarreko akta irakurri eta onartu ostean, 2007ko Jardueren Memoria eta Ekonomia Balantzea aurkeztu genituen, eta batzarrak ontzat eman zituen.

Horren ondoren, 2008ko jardueren programa aurkeztu, eta Eusko Jaurilaritzarekin adostutako Elkarlanerako **Hitzarmena** onartu zuten batzarkideek. ELKARTEAN konfederazioaren azpiegitura eta iraupena bermatzea du helburu hitzarmen horrek.

Bestalde, martxoaren 25ean Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari eskatutako lau diru-laguntzen berri eman zen:

LURRALDEA	KARGUA	ORDEZKARIA
GIPUZKOA	Idazkari	Rabel Barroso Ordoñez
ARABA	Diruzain	Igor Nabarro Brea
BIZKAIA	Presidente	Juan Carlos Sola Guzmán

Halaber, erakundearen estatutuen berritze terminologikoa adostu genuen batzarrean: ordezkatzeko pertsonen irudia kaltetzen duten termino zaharkituak alde batera utzi ("gutxitu", "minusbaliatu"), eta nazioartean onartutakoak erabiliko ditugu, hala nola "gutxitasun fisikoa duen pertsona".

Galde-eskeen atalean, lurralde bakoitzeko ordezkariak hainbat ekitaldi eta jardunaldiren berri eman zuten, eta Mendekotasun Legea Euskal Erkidegoan aplikatzeko dauden zailtasunak izan ziren hizpide. Hala amaitu zen batzarra.

▶ **Prebentzio-, laguntza- eta gizarteratze-programak:** Programa horien bidez ELKARTE aldizkaria argitaratzea, lege-aholkularitza zerbitzua eta prestakuntza-programak finantzatzea aurreikusten da, besteak beste.

▶ **Konponbide berritzaileak ekarriko dituzten gizarte-ekimen esperimentalak:** Alter Civites enpresak eguneratutako Baliabide eta Laguntza Indibidualen Gida argitaratzea da helburua. Laster, formatu birtual interaktiboa izango du gida horrek.

▶ **Ikastaroak eta jardunaldiak antolatzea:** Gure erkidegoan hamar urteotan Irisgarritasun Legea nola aplikatu den aztertze ikastaro bat antolatzea da helburua.

▶ **Mintegiak antolatzea:** Asoziazionismo parte-hartzailearen garrantziari buruzko prestakuntza-mintegi bat antolatu nahi dugu mugitzeko arazoak dituzten pertsonentzat.

Horren ostean, **kargudunak berritzeari** ekin genion, estatutuek agindutakoaren arabera, eta zuzendaritza-batzordea honako hau izatea erabaki genuen:

Gizarte Zerbitzuen Sistemaren Plan Estrategikoa Egiteko

Bigarren Bilera Sektoriala

Gizarte-zerbitzuen sistemaren plan estrategikoa egiteko bigarren bilera sektorialean parte hartu zuen ELKARTEAN konfederazioak. Bilera Gasteizen egin zen, Lakuan, apirilaren 23ko goizeko hamarretan.

Bilera hartan, gutxitasuna duten pertsonen sektorea bildu zen, eta, biharamunean, Gizarte Ongizateko Euskal Kontseiluaren atal soziala osatzen duten erakundeak.

Hamabost bat erakundek jaso zuten bileran parte hartzeko gonbidapena, baina honako hauek bakarrik agertu ziren:

- Elkartean
- Once
- Fevas
- Elhabe
- Euskal Gorrak

Elena Yarza Gizarte Ongizateko zuzendari berriaren aurkezpenarekin hasi zen ekitaldia. Planaren helburuak ezagutarazi zituen, eta gizarte-zerbitzuen sistemaren plan estrategikoa osatzeko prozesuaren bilakaera azaldu. Eusko Jaurlaritzaren asmoa da Gizarte Zerbitzuen Legea ahalik eta lasterren onartzea eta lege horren garapena arautuko duen plan estrategikoa ere berehala baiestea. Plana ekainean onartzekoa zela zehaztu zuten.

Gizarte Zerbitzuen Legea osatuko duen Zerbitzu eta Prestazioen Katalogoa ere egiten ari direla adierazi zuten bileran. Dokumentu hori Gizarte Ongizatearen Euskal Kontseiluak aztertu beharko du.

Horren ostean, EDE fundazioaren ordezkariak hartu zuten hitza, erakunde horren eginkizuna baita plan estrategikoa

prestatzea. Hain zuten, plan hori prestatzeko prozesuaren urratsak azaldu zituzten (testua erantsi dugu), eta honako lerro nagusi hauen berri eman zuten:

- ▶ Lehenengo atala:
 - Xedea
 - 2008-2010 eperako aurreikuspena
 - Printzipioak eta irizpideak
 - Parte hartuko duten eragileak
 - Kudeaketa-mailak eta -organoak
- ▶ 1. *lerro estrategikoa*: Zerbitzuak eskura izateko aukera handiagoa eta populazioaren bizi-kalitatea.
- ▶ 2. *lerro estrategikoa*: Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren kudeaketa artikulatua.
- ▶ 3. *lerro estrategikoa*: I+G+B Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren.
- ▶ 4. *lerro estrategikoa*: Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren lan egiten duten profesionalen kalitatezko enplegua erdiestea.
- ▶ 5. *lerro estrategikoa*: Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren parte hartzea.



Lerro estrategiko horiek hizpide harturik, planean hobetu beharreko alderdiei buruzko eztabaidari ekin zioten bildutakoek. Gutxitasuna duten pertsonen kolektiboaren ordezkari diren erakundeek honako ekarpen nagusi hauek egin zituzten:

- Benetako prozesu parte-hartzailerik ez egotea gaitzetsi zuten. Aurkeztutako lerro estrategikoak "itxiak" dira, eta egin daitezkeen ekarpenak mugatuta daude hasieratik. Halaber, dokumentua aztertzeko denbora urria izan zutela salatu zuten, astebete eskaseko aurrerapenaz jaso baitzuten bilerarako deialdia.
- Gizarte-erakundeei dokumentuaren laburpena soilik eman izana kritikatu zuten. Testu osoa ezin izan zuten aurrez irakurri. Bereziki nabarmendu zuten lehenengo lerro estrategikoaren inguruan azalpenik ez jaso izana, lehenengo lerro hori baita Gizarte Zerbitzuen Legeak lagundutako kolektiboengan eragin handiena izan dezakeena.
- Irabazi asmorik gabeko ekimen pribatuak ez dira soilik zerbitzu-emaleak: are eta garrantzitsuagoa da haien funtzio ordezkatzailerik eta errebindikaziozkoa.
- Zerbitzu eta prestazioak kuantitatiboki eta are kualitatiboki ere hobetu beharko lirateke.
- Egokiagoa izango litzateke Zerbitzu eta Prestazioen Katalogoa lehenengo lerro estrategikoan sartzea, eta ez bigarrean.
- Autonomiaren eta Mendekotasunaren Zaintzarako sistemaren (SAAD) koordinazioa azaldu beharko luke planak, beste sistemekin egiten den antzera (osasuna, enplegua, hezkuntza, eta abar).
- Gizarte Zerbitzuen Sistema aipatzean, irabazi asmorik gabeko hirugarren sektorea ere kontuan hartu beharko litzateke (eta ez soilik Eusko Jaurilaritza, Foru Aldundiak eta Udalak). Izan ere, erakunde horiek ere zerbitzuak eskaintzen dituzte, eta gizarteak baztertzeko dituen edota baztertuak izateko arriskuan dauden kolektiboaren ordezkari dira. Gainera, pertsona horien beharrak asetzen dituzte, eta erakunde publikoek ematen ez dituzten zerbitzuak ere eskaintzen dituzte.
- Bizi-kalitatearen kontzeptuan gehiago sakondu beharko luke plan estrategikoak.
- Gizarte Zerbitzuetako profesionalen enplegu-kalitatea aipatzean, kontuan hartu beharko lirateke mendekotasuna duten pertsonak zaintzen dituzten zainzaile ez-profesional eta laguntzaile pertsonalak. Autonomia Pertsonala Sustatzeko eta Mendekotasuna duten Pertsonen Arretarako Legea indarrean jarri zenean, zainzaile eta laguntzaile horiek "profesionalak" direla onartu zen; beraz, haien enplegu-kalitatea hobetu beharko litzateke, eta haien eginkizunetarako beharrezkoa duten prestakuntza eskaini.

Giza Eskubideak eta Gutxitasuna

Nazio Batuen Erakundeak 2006ko abenduaren 13an gutxitasuna duten pertsonen eskubideei buruz egindako Konbentzioak aitortu du gutxitasuna duten pertsonen eskubideak giza eskubide direla.

Aitorpen hori urrats garrantzitsua da pertsona guztiek –bai eta gutxitasuna duten pertsonak– berezkoak dituzten duintasuna eta balioa, eta eskubide pareko eta ezin besterenduzkoak onartzeko bidean. Gainera, bultzada

handia da eskubideak eraginkorrak izan daitezzen eta populazioaren zati handi batek nazioarteko babesa izan dezan, eta, azken batean, estatu sinatzaileek babes hori bermatzeko beharrezkoak diren neurriak har ditzaten.

Helburua da pertsona guztiek, berdintasunean eta inolako diskriminaziorik gabe, oinarrizko eskubide eta askatasun guztiez gozatzea, eta hori sustatzea, babestea eta bermatzea.

Helburu hori betetzeko, *gutxitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioaren Hautazko Protokoloa berretsi behar dute estatu sinatzaileek eta, horren ondoren, estatu horien ordenamendu juridikoan integratu behar da Konbentzioa. Protokoloa berresteko tresna 2008ko apirilaren 22an argitaratu zen, eta 2008ko maiatzaren 3an* jarri zen indarrean. Gure esparruan protokolo hori betetzeak estatu, autonomia eta herri mailako araudiak aldatzea eta garatzea dakar, eta eskubide horiek errespetatzen dituzten politikak egituratzea, benetako eraginkortasuna lortzeko bidean oztopo guztiak gainditzeko. Konbentzio horretan oinarriturik, esate baterako, gutxitasuna duten pertsonen aukeraberdintasunaren, diskriminazio-ezaren eta irisgarritasun unibertsalaren aldeko legea onartu da gure esparruan.



Konbentzioak hainbat **eskubide** onartu ditu. Besteak beste: bizitzeko eskubidea; legearen aurrean beste pertsonen pareko errekonozimendua izatea; justiziara heltzea; joan-etorrietarako askatasuna; mugikortasun pertsonala; mendekotasunik gabe bizitzeko eskubidea; bizitza publikoan, kulturari, aisialdiko jardueretan edota kiroletan parte hartzea; osasuna, lana eta enplegua izateko eskubidea, eta abar. Hau da, edozein pertsonari aitortzen zaizkion eskubide berberak. Konbentzioan parte hartu duten estatuei **betebegar orokor** batzuk ezarri zaizkie, eta **printzipio orokorrak** zein diren zehaztu da: pertsonak berezkoa duen duintasunarekiko errespetua, pertsonen autonomia eta independentzia, diskriminazio-eza, gizarteratze oso eta eraginkorra, desberdinarenganako errespetua, gutxitasuna duten pertsonen onarpena –hori giza izaeraren eta dibertsitatearen adierazle den heinean–, aukeraberdintasuna, irisgarritasuna, gizon eta emakumeen berdintasuna, gutxitasuna duten haurren gaitasunen bilakaerarekiko errespetua eta haien identitatea babesteko eskubidea.

Gutxitasuna duten pertsonen batzordea sortzea ere xedatu du Konbentzioak. Aipatutako eskubideei buruzko txostenak aurkeztu behar dizkiote Estatuak batzorde horri, eta estatu bakoitzean eskubide horiek nolako aplikazioa izan duten eta zenbaterainoko eraginkortasuna lortu duten adierazi. Halaber, batzordeak dagozkion gomendio eta iradokizunak egingo dizkie estatuei. Estatuak eskubide horiek bermatzen dituela egiaztatzen ez badu, edota txostena bere garaian aurkezten ez badu, Nazio Batuen Erakundearen aurrean salaketa jar dezake batzordeak, eta eskubideak betetzeko eska diezaioke nazioarteko komunitateak estatu horri.

Hemendik aurrera, gutxitasuna duten pertsonen eskubideen babesa beren gain har dezakete bai kolektibo hori babesteko sortutako erakundeek, eta baita giza eskubideak babestea helburu duen nazioarteko edozein erakundek ere.

Eskubide Sozialen

Egungo Egoerari Buruzko Jardunaldia



Iñigo Lamarca Arartekoa, Granadako Unibertsitateko Konstituzio Zuzenbideko Katedraduna eta moderatzailea, Jardunaldiko lehenengo saioan.

Arartekoak eta UPV-EHUko Konstituzio Zuzenbidea eta Politika Pentsamenduaren eta Gizarte Mugimenduen Historia Sailak antolatutako jardunaldian egon zen **elkartean** 2008ko otsailaren 25ean.

Besteak beste, honako gai hauek izan ziren hizpide: **eskubide sozialak** autonomia-estatutu berrietan, **Mendekotasun Legeak** ezarritako eskubideak, **etxebizitza** duin eta egokia izateko eskubidearen eraginkortasuna, eta **oinarrizko errenta** izateko eskubide soziala. Gai horiek guztiak garrantzi handikoak dira Elkartearen erakundearentzat, eta lotura zuzena dute politika sozialean eragin nahi ditugun aldatetekin eta Euskal Erkidegoko gutxitasun fisikoa duten pertsonen elkarteok gure gain hartzen dugun gizarte-lanarekin.

Babes publikoko etxebizitzak

Legegintzako Nobedadeak

Azken hilabeteetan Eusko Jaurlaritzak arau batzuk argitaratu ditu, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoa egokitzeko asmoz, bai gaur egungo beharretara, bai Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Lurzoru eta Hirigintzako 2/2006ko Legea.

Hortaz, hona hemen xedapen arauemaile horiek:

- Martxoaren 4ko 39/2008 Dekretua, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitza eta lurraren gaineko finantziazio-neurriei buruzkoa.
- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2008ko apirilaren 16ko

Agindua, Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroa arautzen duena.

- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2008ko apirilaren 16ko Agindua, babes ofizialeko etxebizitzaren esleipen-prozedurari buruzkoa.
- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2008ko apirilaren 16ko Agindua, etxebizitza-premiaren inguruko egoerari buruzkoa.

Gaur egun etxebizitzaren arazoak eta horrekin zerikusia duen guztiak zer-nolako garrantzia duen kontuan hartuta, xedapen horiek ezintasuna duten pertsonen kolektiboarentzat

eragin dituzten nobedade nagusiak azalduko ditugu ondoren.

- ▶ Pertsona juridikoen aldetik babes ofizialeko etheen jabetza eskuratzea onartzen da, irabazi-asmorik gabeko erakunde bat denean eta dagokion administrazioarekin hitzartutako gizarte-jarduerako programak egiten dituztenean.
- ▶ Ezintasuna duten pertsonen egokitutako etxebizitzak jabego eskusiboan edo baterako titulartasunean hartu beharko dira, edota alokatuak izan beharko dute, banaka nahiz partekatuta, mugikortasun murriztuko ezintasun iraunkorra duten pertsonen edota mugikortasun murriztuko ezintasun iraunkorra duen pertsona baten guraso-agintera edo tutoretza duten pertsonen.
- ▶ Mugikortasun murriztuko ezintasun iraunkorra edo ezintasun psikikoa duten pertsonen kasuan, alokairu-erregimenean ez da diru-sarrera minimoak egiaztatzerik eskatuko, eta jabego osoko edo lurrazal-eskubideko erregimenean aski izango da 3.000 euroko diru-sarrera minimoa egiaztatzea. Lehen, aukera hori mugikortasun murriztuko ezintasun iraunkorra zuten pertsonen bano ez zitzaien aitortzen; orain, berriz, ezintasun psikikoa duten pertsonen ere aplikatzen zaie.
- ▶ Jabegoko edo lurrazal-eskubidean eskuratutako babes ofizialeko etxebizitzak alokairuan edo prekarioko lagapenean ematea onartzen da, dagokion lurralde-ordezkariek alde aurretik baimenduta, baldin eta titularrak berak etxebizitza berarentzat ezin erabili duela adierazten duten aldi baterako arrazoiak baldin badaude, hala nola familiako baten mendekotasuna.
- ▶ Babestuko bizileku-mota berri bat sortu da, "hornikuntzako bizilekuak" izenekoak, nola aldi baterako bititoki moduan, hala gizartean behar berezia duten kolektiboentzako gizarte-bititoki gisa. Besteak beste, ezaugarri hauek dituzte:

- Bititokian guztientzat diren elementuetara eta bititoki-unitate guztietara gurrpil-aulkia behar duten erabiltzaile guztiei sarbidea ziurtatzea.
- 50 unitatetik bat gurrpil-aulkia behar duten erabiltzaileei egokitutako bititoki-unitatea izango da, edo zatiki bat, bizileku-kopurua 25 unitate baino handiagoa den kasuetan.

- ▶ Mugikortasun murriztuko ezintasun iraunkorra duten pertsonen egokitutako etxebizitzak honela esleituko dira: bizikidetzako unitateak izango dira, eta kideren batek mugikortasun murriztuko ezintasun iraunkorra duen pertsonaren baldintzak bete beharko ditu. Eskaerarik ez izateagatik esleitu gabe gelditzen diren etxebizitzetarako, lurralde-ordezkariek bizikidetzako unitateetarako egindako eskaeren zerrenda bat emango du, antzinatasunaren arabera ordenatuta. Eskaerak ezaugarri hauek bete beharko dituzte, betiere etxebizitzak araudi aplikagarriaren arabera esleituak izan daitezkeen.
- ▶ Alokairu-erregimeneko etxebizitzak esleitzeko prozeduretan kupo bat ezarriko da ezintasun psikikoen baldintzak egiaztatzen dituztenentzat.

Azken batean, Euskal Herrian ezintasun fisikoa duten pertsonen kolektiboak eskuratu dituen eskubideei eustearekin batera, lorpen batzuk ere gertatu dira azken urteetan errendikazio-gai izan diren hainbat alderditan. Halaz ere, hainbat zailtasunek ezintasun fisikoa duten pertsonen etxebizitza duin bat lortzeko eskubidea oztokatzen dute oraindik ere, eta, ez bairik gabe, sektoreko araudian nahiz lantze-prozesuan den Etxebizitzaren Legean landu beharko dira.

GIZARTE LANARI

BURUZKO I. JARDUNALDIA.

Lanbidearen ikuspegi etikoa

Joan den apirilaren 17an, Gizarte Lanari buruzko I. Jardunaldia izan zen Filologia, Geografia eta Historiako Fakultateko areto nagusian, LANBIDEAREN IKUSPEGI ETIKOA izenpean.

Arabako Gizarte Laneko eta Gizarte Laguntzaileen Elkargo Ofizialak eta EHUKo Gizarte Laneko Unibertsitate Eskolak antolatu zuten jardunaldia. Gizarte-lanaren bi lan-eremu nagusien arteko elkarlana bultzatzea zen helburua, hau da, formakuntzaren eremua eta eremu profesionala.

Lanbidearen ikuspegi etikoa izan zen jardunaldiko gai nagusia, eta hori ez da kasualitate hutsa: gizarte-lanean etikari garrantzia, ardura eta interesa ematen zaiola adierazten du horrek.

Joan Salles *Arabako Campuseko Errektoreordeak*, Covadonga Solaguren *Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politikako eta Gizarte Zerbitzuetako Diputatuak* eta Peio Lopez de Munain *Gasteizko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Zinegotziak* egin zuten inaugurazio-ekitaldia (ikus irudia), eta, ondoren, jardunaldiko programari heldu zioten jardunaldiko parte-hartzaileek.

Lehen saioan, etika kontzeptuaren hurbilketa filosofiko bat egin zuen Xabier Andonegi Gurrutxagak —filosofoa eta EHUKo irakaslea—. Ondoren, etika eta gizarte-lana uztartu

zituena Natividad de la Redek —gizarte-langilea eta Valladolideko GLUEko katedraduna—.

Funtsezko azalpen horien ostean, kode deontologikoaz eta gizarte-lanean oinarri-oinarrizkoak diren konfidentzialtasunaz eta sekretu profesionalaz jardun zuten Ana I. Limak —gizarte-langilea eta Gizarte Lanerako Diplomatuena eta Gizarte Laguntzaileen Elkargo Ofizialeko Kontseilu Nagusiko burua— eta Jose Manuel Ramirezek —gizarte-langilea eta Gizarte Zerbitzuetako Zuzendarien eta Gerenteen Elkarteko burua—.

Jardunaldia amaitzeko, egun gure erkidegoan egiten ari diren hainbat saio on eta etikoren berri eman zuten.

Eginaren eginez erakundean gizarte-lanean jarduten dugunontzat, oso garrantzitsua izan da gure lanbidea ikuspegi etikotik eztabaidatzea, hausnartzea, lantzea eta aztertzea.

Gizarte-lanak hausnarketarako uneak behar ditu: egungo erronka eta arazo etikoei aurre egiteko, garrantzitsua da gizarte-lana “alderdi akademikotik” eta “alderdi profesionaletik” lantzea.

Gizarte-lanaren ikuspegitik, gizarte-lana bultzatzeko eta gizarte-lanaren alde, ohartu beharrean gaude balioak, gaitasun teknikoa eta ezagutzak direla lanbidearen bere-berezko osagaiak.

Gure lanbidea arautzen duen esparru etikoaren inguruan gabilta gizarte-langileok. Etika-kodeek azaltzen dute esparru horretan esku hartzeko urratsak zein diren. Etikoki jarduteko gaitasuna eta konpromisoa funtsezkoak dira gizarte-lanaren zerbitzuak erabiltzen dituztenei —gure kasuan, Araban gutxitasun fisikoa duten pertsoneri— kalitatezko zerbitzua emateko.



II. IKUSEZINA IKUSGAI BIHURTU

Eskubide sexualak EZGAITASUN FISIKOA DUTEN PERTSONEN

“Ikusezina ikusgai bihurtu II”

lemapean, eginaren eginez elkarteak herritar askorentzat ikusezina den gai bat landuko du aurten Araban lehendabiziko aldiz. Gai hori, hain zuzen, ezintasun fisikoak dituzten pertsonen sexu-eskubideak dira.

Ezintasunak dituzten pertsonen buruzko gizarte-ikuspegian, aurreusterik zabalduenetako bat da kolektibo horretako kideek ez dutela sexu-premiarik. Uste horrek gizartearen beraren tabuak ditu oinarri, eta nabarmen murriztu du hainbat ezintasun-mota dituzten pertsonak bizitza aktiboa izateko duten aukera.

Munduan ezintasun fisiko, intelektual edo sentsorialak dituzten 500 milioi pertsona bizi direla kalkulatzen da.

eginaren eginez elkarteak, bada, kolektiboko hainbat pertsonak egin duzuen eskaerari erantzun nahi dio, hots, zuen sexualitatea agerian jartzeari.

Izan ere, gizarteak oraindik pentsatzen du ezintasunak dituen pertsona batek ezin duela sexualitateaz bete-betean gozatu. Helarazi diguzuen kexetako bat da, jendeak begiratu egiten zaituztenean gizon bat edo emakume bat ikusi beharrean, minusbaliatu bat ikusten duela.

Baina ezintasunak dituzten pertsonak maitemindu egiten dira, sexu-grina dute, amets egiten dute, berotzen dira... eta sexu-harremanak dituzte, hala erabakitzen dutenean. Hori egiten

HAZ VISIBLE
LO INVISIBLE II

II. IKUSEZINA
IKUSGAI
BIHURTU

Derechos
sexuales

DE LAS PERSONAS CON DISCAPACIDAD FÍSICA
EZGAITASUN FISIKOA DUTEN PERTSONEN

Eskubide
sexualak

EL PILAR
eginez

Asociación de Personas con Discapacidad Física de Euzko Autonomo Errepublikan

Avda. 3 de Julio, Centro Cívico EL PILAR
HORAS: 19:00 h.

EDUINA: Beñatxé 3, El PILAR Gizezte Etxean
ORDUA: 19:00h

Basileo Torralba de Zuzargatza 44-46 Egoi / Barrio + 20080 Mirna-Gandía
Tel: 942 21 08 02 - Fax: 942 21 01 10
e-mail: eginez@el Pilar.org

dute, behintzat, sexua soilik gazteentzat, bizkorrentzat eta lardenentzat dela dioen gezurra sinesten ez dutenek.

Guztion erantzukizuna da ezintasunak dituzten pertsonen sexualitateari buruz gure gizartearen nagusi den ideia pixkanaka-pixkanaka deuseztatzea.



eginaren eginez elkarteak gogor egingo du lan kolektibo horren sexu-eskubideen alde.

Hona hemen ezintasun fisikoak dituzten pertsoneri dagozkien sexu-eskubideetako batzuk:

- ▶ Sexualitateari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea.
- ▶ Sexuari buruzko hezkuntza jasotzeko eskubidea.
- ▶ Sexualki adierazteko eskubidea.
- ▶ Amatasunerako/aitatasunerako eskubidea.
- ▶ Laguntza-zerbitzuak erabiltzeko eskubidea.
- ▶ Izaki sexudun gisa tratatuak izateko eskubidea.
- ▶ Sendagaiek sexualitatean izan ditzaketen eragin kaltegarriari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea.
- ▶ Pribatutasuna eta intimitatea edukitzeko eskubidea.

- ▶ Bikoteak sortzeko eskubidea.
- ▶ Beste pertsona batzuekin harremanak izateko eskubidea.

Kontua ez da bi sexualitate mota daudela: ezintasunak dituztenena eta ez dituztenena. Aitzitik, pertsona adina sexualitate-mota dago. Denok gara berdinak eta desberdinak aldi berean. Berdinak, denok ditugulako eskubide eta behar berak, eta desberdinak, berriz, bakoitzak sexualitatea bizitzeko modu bat duelako.

Gai hori lantzeko, **EMAIZE** Sexologia Zentroaren laguntza izango dugu. Kabinete hori 1994az geroztik ari da lanean sexologiaren alorrean. Sexuari buruzko hainbat hezkuntza-eta aholkularitza-proiektu aurrera eraman ditu, gizarte-eragileentzako prestakuntza eman du, eta sexualitateari buruzko hamaika ikerketa egin ditu.

EGUNA: Uztailak 3, El PILAR Gizarte Etxean
ORDUA: 19:00etan

Errektore- ordearekiko bilera

Eginaren eginez elkarteak mugitzeko arazoak dituzten ikasleen eskaerak helarazi dizkio Joan Salles EHUko Errektoreordeari: guztizko normalizazioa eta aukera-berdintasuna.

Joan den apirilaren 14an, **eginaren eginez** elkartearen ordezkariak Joan Salles Alvira errektoreordearekin bildu ziren. Mugitzeko arazoak dituzten edo gutxitasun fisikoa duten ikasleek Arabako campusean zein egoera bizi duten ezagutzea zen helburua.

Bilera atsegin hartan, arduratzen gaituzten zenbait egoeraren berri eman genion errektoreordeari. Arabako campuseko arduraduna da Salles jauna, eta, hurrengo lan-taldeko kide ez zela izango esan zigun arren, pertsona egokia da egoera horien guztien inguruko informazioa eta laguntza emateko.

Hasteko, unibertsitatearekin zer harreman izan dugun azaldu genion —bai Araban, bai Arabaz haratago ere, **elkartean** taldearen bitartez—. Horri guztiari esker ezagutu genituen UOZ (Unibertsitateko Orientazio Zerbitzua) eta elbarritasuna duten ikasleak integratzeko plana. Hain zuzen, lehenago ere salatua genuen, batetik, ikasle horiei laguntzeko aurrekonturik ez egotea eta, bestetik, laguntza horren oinarria ikasleen borondate ona izatea.

Egun, unibertsitatean, Elbarritasun Zerbitzuak kudeatzen du dena. Zerbitzu horrek campus guztiei jakinarazten die zein laguntza behar den gure arloan. Errektoreordeak esan zigunez, unibertsitateak 220 gela ditu ikasleen egoitzetan, eta haietako batzuk gutxitasun fisikoa duten ikasleentzat daude gordeta (Tomas Alfaro Fournier ikasle-egoitzan). Arazo guztiak

Elbarritasun Zerbitzuak kudeatzen ditu; adibide gisa adierazi zigun jangelan ere ikasle batzuek jateko baldintza jakin batzuk badituztela. Halaber, dekanoei jakinarazten zaie beren zentroan zenbat ikasle elbarritu dauden matrikulatuta, baita irakasleei ere, banan-banan.

Arabako campuseko obren egoeraz hitz egin genuen; izan ere, Filologia, Geografia eta Historiako Fakultatean eraberritze-lanak egin dituzte, eta gehiago ere egingo dituzte 2009. urtera bitarte (Hezkuntza Fisikoa eta Kiroletako Fakultatean).

Bestalde, mugitzeko arazoak dituzten ikasleek Socrates eta Erasmus programetan parte hartzeko aukera izan behar dutela adierazi genion errektoreordeari. Gai horri buruzko informazioa eman zigun, nahiz eta mugitzeko arazoak dituzten ikasleen parte-hartzeari buruzko datu zehatzik ez izan. Programetan parte hartzeko baldintzak hizkuntzak jakitea (ingelesa) eta espediente akademiko ona izatea direla azaldu zigun, eta programa horien arduradunarengana jotzea proposatu zigun lanerako ildoak finkatzeko.

Amaitzeko, zenbait kexu helarazi genizkion Arabako campuseko irigarritasunari buruz: giltzapeko irigarritasuna (igogailua erabiltzeko, giltza eskatu behar da), idazmahai eta laborategiko altzari ez-egokituak, oholtzara igotzeko arazoak, matrikula egiteko ordenagailu ez-afrososak, unibertsitateko fakultate eta eskola batzuetarako sarrera ez-egokituak (adibidez, Gizarte Laneko Eskolako sarrera), ate pisutsuak, eta txirrin eta harrera-mahai altuegiak. Beste atal batean, unibertsitateko garraioaren arazoei buruz hitz egin genuen.

ELBARRITASUNAREN DEFENTSA JURIDIKOAREN IKUSPEGI BERRIA

Aurtengo apirilaren 24an, *Estatuko CERMI batzordea osatzen duten Erakundeetako Lege Aholkularien lehenengo lan-bilera* egin zen Madrilan, eta han izan zen **eginaren eginez** ere. Lehenengo helburu garbi eta zehatza da, izenburuak dioen bezala, elbarritasunaren defentsa juridikoaren ikuspegi berri bat finkatzea.

Aurkezpenetan, hainbat gai landu ziren. Hona hemen horietako batzuk: pertsona elbarrituen eskubideen testuinguru berria, pertsona elbarrituen aukera-berdintasunari buruzko arau-hauste eta zigorren araubide berria, "pil-pilean" dauden gaien defentsa juridikoa, Elbarritasunean Espezializatutako Kontseilu Nazionalako Bulego Iraunkorraren funtzioa, eta doako justizia eta egun dauden orientazio juridikoko zerbitzuak.

Pertsona elbarrituen eskubideen testuinguru berriari dagokionez,

CERMIko Aholkularitza Juridikoko Zuzendari Miguel Angel Cabra de Lunak azaldu zuen pertsona elbarrituen eskubideen arloan zer-nolako aurrerapenak egiten ari diren arauetan eta tresna juridikoetan. Hurrengo erronka tokiko, autonomietako, estatuko eta Europako arauetan eskubide horiek eraginkorrak izatea da; horixe egin dute, duela gutxi, nazioarteko arauetan ere, *persona elbarrituen eskubideei buruzko NBERen Konbentzioaren* antolamendu juridikoak arau-hauste eta zehapenei buruz emandako arauari esker. Arau hori Estatuko barne-antolamenduan dago jada eta, hori dela eta, pertsona elbarrituen eskubideak berma daitezten, arau guztiak egokitu edo aldatu egin behar dira.

Gure araudian, aukera-berdintasunerako legeari *Arau Hausteen eta Zigorren Legea* gehitu zaio; hala ere, lege hori oraindik ere garatzeko bidean da, eta ezin betearaziko da garapen hori autonomietara iritsi arte. Lurralde bakoitzean arau-hauste eta zigorren lege autonomiko bat onar dadin, dokumentu-eredu bat sortu du CERMIk. Gizartean elkarrizketa bultzatzea proposatzen du CERMIk, honako helburu hauek bete daitezten: lege hori behar bezala garatzea, ondorio positiboak izango dituzten neurriak hartzea, orain arteko prebentziozko babes eskasa (edo nulua) aldaraztea eta, eskubideak babesteko sistema gisa, arau-hauste eta zigorren araubidea eta babes judiziala ezartzea.

Banakako kasuek adierazten digute zer motatako arazoei aurre egin beharko diegun etorkizunean. CERMIren **2007ko urteko txostenean**



azaldu dira kasu horiek: batik bat Gizarte Segurantzako kontsultari dagozkion kasuak dira, bai eta eskubide administratiboari edo diskriminazioari eta aukera-berdintasunaren legea ez betetzeari dagozkionak ere. Enpleguari lotutako arazo nagusiak bat-bateko elbarritasunarekin zerikusia duten kasuak dira, bai eta erreserben kuotari lotutakoak ere.

Aukera-berdintasunaren diskriminazioari eta arau-hausteei dagokienez, zera da ondorio nagusia: Administrazioak berak bultzatzen du diskriminazio hori. Horregatik, irtenbide eraginkorretarako bideak aurkitzeko, arazoibide guztiak bateratzen saiatu behar dugu, tarteko bideei jarraituz eta Arartekoaz, autonomietako buruez, lan-ikuskatzaileez edota, egokia bada, Fiskaltzaz baliatuz. Onuragarria litzateke, halaber, legeak sustatzea, indartzea, definitzea eta egoki txertatzea.

Elbarritasunaren Kontseilu Nazionalean, gai horretan **Espezializatutako Bulego Iraunkorra** sortu da duela gutxi. Bulego horren funtzioak honako hauek dira, besteak beste: elkarte, federazio eta konfederazioei kontsultarako aholkularitza eta laguntza legala ematea, eta administrazio-organoei (udalekin, esaterako) elkarlanean

jarrotea, irisgarritasunaren araudia esparru jakin batzuetan aplikatzeko. Azkenik, bulegoak urteko txosten bat prestatu zuen duela gutxi, elkarreek aurkeztutako kexuak jasotzeko.

Pertsona elbarrituen eskubideak babesteko bideetako bat da babes judiziala eta **doako justizia** eskatzea. Egiaztatuta dago oso gutxi baliatzen dugula eskubide hori. Eskatzaileak dokumentu gutxiago aurkeztu behar izatea ere eskatzen dugu. Izan ere, Administrazioak berak bere kasa lor dezake informazio hori; hala adierazi zuen Espainiako Abokatutzaren Kontseilu Nagusiko abokatuak, eta, areago, kontu hori Administrazio Autonomikoei proposatzeko modukoa dela azaldu zuen.

Beraz, araudia autonomia-erkidego guztietan betearazteko informazioa bideratu behar da, eta, era berean, erkidego batetik bestera izan daitezkeen jarduera desberdinak partekatu eta guztion indarrak bildu. Gainera, guztiok batera araudia aldatu edota arau berriak sortu behar ditugu, pertsona elbarrituen eskubideak egiazki eta modu eraginkorrean bete daitezzen. Lehenengo bilera izan da, proiektu bat abian jartzeko lehenengo urratsa: pertsona elbarrituen eskubideen defentsa juridikoaren aldeko sistema bateratua osatzeko.

Vitoria-Gasteizko eraikuntza-lanetako segurtasuna

Eginaren eginez taldeak salatu du Andre Maria Zuriaren plaza berregituratzeko lanek eta Vitoria-Gasteizko bide publikoetan egiten diren lan gehienek ez dutela betetzen Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen irisgarritasun-araubidea.

IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO ABENDUAREN 4KO /1997 LEGEAK,

apirilaren 11ko 68/2000 DEKRETUAN, hiriaren beraren, espazio publikoen, eraikinen eta informazio- eta komunikazio-sistemen irisgarritasunaren baldintzei buruzko arau teknikoak baietsi ditu. Lege horren II. ERANSKINEAN, HIRIAREN IRISGARRITASUNAREN BALDINTZA TEKNIKOAK zehaztu dira, eta **HIRIKO ALTZARIAK** izeneko



Andre Maria Zuriaren Plaza, berregituratze-lanak hasi aurretik.

4. artikulua arautu du zehatz-mehatz nola egon behar duten kokatuta bide publikoan dauden elementu guztiek.

Artikulu horren 4.3. paragrafoan (ikus **4.3.- BEHIN-BEHINEKO ELEMENTUAK BABESTEA ETA SEINALEAK JARTZEA**) zehaztu da, bide publikoan egiten diren lanetan, behin-behineko pasabideek nolakoak izan behar duten oinezko guztien segurtasuna eta irisgarritasuna bermatzeko. Zenbait adibide ere ageri dira paragrafo horretan.



Artikulu horrek honela dio:

4.3. BEHIN-BEHINEKO ELEMENTUAK BABESTEA ETA SEINALEAK JARTZEA.

- 1. Arriskua sor dezaketen edo erabilera publikoko espazio libre baten irisgarritasuna mugatzen duten behin-behineko elementuak —hala nola aldamiok, zanga-zuloak edo erabilera publikoko espazio libreetan egin beharreko edozein lan mota— pertsonen segurtasun fisikoa bermatzeko moduan babestu eta seinale bidez adierazi beharko dira.**
- 2. Babesgarriek eta seinaleek honako baldintza hauek bete behar dituzte:**

- 3. Babes-hesiek ez dute ertz-bizirik izan behar, ez dute irristakorrak izan behar, eta egonkorak (ez iraultzeko) eta jarraituak izan behar dute. Material-biltegien, zanga-zuloen, zundatzeen eta antzekoen perimetro osoa hartzeko moduan kokatu behar dira hesiak, eta gutxienez 50 cm-tan berezita (alderik irtenenetik neurtuta). Debekatuta dago hesien ordeztu soka, kable, sare edo antzekorik erabiltzea.**
- 4. Babes-elementuek argi gorriez seinalatuta egon behar dute argi naturala urria den orduetan, mugitzeko arazoak dituzten pertsonen aurrez ikus ditzaten.**
- 5. Oinezkoentzako edozein bide erabiltzea aldi baterako mugatuta geldituz gero, bide horiek gutxienez 1,50 m-ko pasabide bat izan beharko dute, oztoporik gabea. Espaloia estuagoa izanez gero, pasabidea espaloia bezain zabala izango da.**
- 6. 2,20 m baino txikiagoko aldamiok behar bezala babestu eta seinale bidez ohartarazi behar dira, lurreraino eta ibilbidearekiko luzetara, ikusteko zailtasunak dituzten pertsonen irisgarritasuna errazteko.**
- 7. Edukiontzia oinezkoentzako ibilbideetatik kanpo egongo dira.**
- 8. Ezaugarri ortoedrikoak ez dituzten elementuen forma moldatu egin behar da, ezaugarri horiek izan ditzaten: lurretik edukiontzia goiko ertzeraino babes-elementuak erantsita edota pertsona itsuek beren bidean edukiontzia antzemateko moduko beste soluzioren baten bidez.**
- 9. Edonola ere, edukiontzien barruko materiala kontrolatu egin behar da, material hori edukiontzia mugatu bertikaletik irten ez dadin.**

Irudi hauek dira horren guztiaren adibide:



Irisgarritasunaren araudia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, honako lege eta dekretu hauetan:

- **IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO ABENDUAREN 4KO 20/1997 LEGEA. 1997ko abenduaren 24ko (asteazkena) EHAaren 246. zenbakia.**
- **Apirilaren 11ko 68/2000 DEKRETUA. Hiri-ingurune, espazio publiko, eraikin, eta informazio- eta komunikazio-sistemen irisgarritasunaren baldintzen arau teknikoak zehaztu ditu dekretu horrek. 2000ko ekainaren 12ko (astelehenekoan) EHAako 110. zenbakiaren gehigarria.**

Udalak araudia beteko balu, hiritar guztiek, oro har, bide publiko seguruak

erabili ahal izango lituzkete, baita eraikuntza-lanak daudenean ere. Gure kasuan, mugitzeko arazoak dituzten pertsonak eskubidea izango lukete bide publikoetan baldintza beretan ibiltzeko, guztiz erabilgarriak eta seguruak diren bideak izango genituzkeelako, behar bezala seinalatuta eta elementu arriskutsuak identifikatzeko eta ekiditeko beharrezko informazioa emanda.

Eginaren eginez elkartearen izenean, berriz ere eskatzen diogu V itoria-Gasteizko Udalari legeak bete eta betearaz ditzan, istripu gehiago gerta ez dadin (joan den apirilean, emakume gasteiztar bat hil zen plaza zeharkatzen ari zela lanabes baten kontra estropezu egin zuelako), ez behintzat irisgarritasunari buruzko araudia betetzen ez delako.



Andre Maria Zuriaren plazako lanak balkoi jarraitutik ikusita



Andre Maria Zuriaren Plaza berria.

eginaren eginez elkarteak

Vitoria-Gasteizko Gizarte Kontseiluan parte hartuko du

Joan den martxoaren 13an, Irisgarritasunari buruzko Udal Kontseilua egin zen, eta han berretsi zuten **eginaren eginez** elkarteak Vitoria-Gasteizko Udaleko Gizarte Kontseiluan parte hartuko duela organo horren erakunde ordezkari gisa.



Egungo Gizarte Kontseiluko kideak.

Gizarte Kontseilua osatu ondoren, lan-batzordeak antolatu zituzten. Lan-batzorde horien lana izango da udalerriko biztanle guztientzat interes orokorrekoak diren gaiak eztabaidatzea.

Lan-batzorde horiek bost arlotan banatu dituzte: gizarte-gaiak, pertsonen gizarte-ingurunea, lurraldeko gaiak, ekonomia eta kontu-ikuskaritza, eta barne-kalitatea. Landu eta azertu beharreko gai guztiak bost arlo horien arabera sailkatuko dituzte aurrerantzean.

eginaren eginez elkarteak honako lan-batzorde hauetan parte hartuko du:

- **Gizarte-gaiak.** Besteak beste, honako gai hauek landuko dituzte: berdintasuna, osasuna, hirugarren adina, haurtzaroa eta nerabearoa, hezkuntza, familia, enplegua eta gizarte-ongizatea, eta elbarritasuna.

- **Pertsonen gizarte-ingurunea.** Besteak beste, honako gai hauek landuko dituzte: lankidetzta, kultura, kirolak, herritarren segurtasuna eta herritarren parte-hartzea hainbat arlotan.
- **Lurraldeko gaiak.** Besteak beste, honako gai hauek landuko dituzte: garapen iraunkorra, irisgarritasuna, ingurumena, mugikortasuna, hirigintza, etxebizitza eta Erdi Aroko hirigunea.

Lan-batzordeak lanean hasiak dira dagoeneko, eta **eginaren eginez** taldeak zenbait helburu hartu ditu bere gain: Udalerriko Irisgarritasun Plana, eskola-garraioa erabilgarriagoa izatea...

Gainera, **eginaren eginez** elkarteak hainbat jarduera eta gai aurkeztu zituen Gizarte Kontseiluaren osoko bilkuran. Irisgarritasunaren Udal Kontseiluan eztabaidatzen ari dira gai horiek.

Hona hemen aipatutako gai batzuk:

- Herritarren parte-hartzea bultzatzeko Plan Zuzentzailea.
- Vitoria-Gasteizko Irisgarritasun Plana
- Erakundeek nahiz partikularrek Irisgarritasunaren Legea bete-tezarekin zerikusia duten gaiak .
- Erdi Aroko hiriguneko Irisgarritasun Plana (hiriko Irisgarritasun Planetik bereiz lantzen ari dira gai hori).
- Mugitzeko arazoak dituzten pertsonentzako aparkalekuak.
- Taxi Bono programa.
- ...

| 200 pertsona inguru bildu dira

FEKOORen I. Jardunaldian

200 bat pertsona izan ziren FEKOORek antolatutako "Hiritarren Eskubideak eta Norbere Autonomia" izeneko I. jardunaldian. Hitzaldi-zikloa urtero antolatuko da, eta eztabaida-foro egonkorra izango da taldeari bere eskubideen berri emateko eta, horrekin batera, gizarteari eta agintari politikoei gure aldarrikapenak eta mezuak igorri ahal izateko.



200 bat pertsona izan ziren "Hiritarren Eskubideak eta Norbere Autonomia" jardunaldian. FEKOORek, Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Bizkaiko Federazio Koordinatzaileak, antolatu zuen jardunaldi hori iragan maiatzaren 7an, Bilbaoko Euskalduna Jauregian. Jorratutako gaien gaurkotasunak eta hitzaldien kalitate onak jardunaldi horren arrakasta ziurtatu dute. Bertaratutako ikusleengan interes handia piztu du, baita hedabideetan ere. Hedabideek ekitaldi hori gertutik jarraitu dute, eta gure aldarrikapenak jaso ez ezik, gure mezuak ere igorri dizkiote iritzi publikoari. Lehen hitzaldi-ziklo hau urtero antolatuko da, eta minusbaliotasuna duten pertsona-taldeen erronkei buruzko eztabaidarako foro egonkor gisa hartu nahi da, baita alor horretan Administrazioek dituzten eskumenei buruzko eztabaidarako ere.

Agintari hauek eman zioten hasiera jardunaldiari: Gizarte Ekintzako Ahaldu Nagusi Juan Maria Aburto jauna, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gai eta Etxebizitzako Sailburuorde Fernando Consuegra jauna eta Bilbaoko Udaleko Gizarte Ekintzako



zinegotzi Ticardo Barkala jaunak. Beste zenbait agintariren artean, hauek ere han izan ziren: Norbere Autonomiaren Sustapenerako Zuzendari Nagusi Pedro Fernández de Larrinoa jauna, Bizkaiko Aldundiko Garraioetako Zuzendari Nagusi Alberto Mostajo jauna, Heziketa eta Lan Diputatu Eusebio Larrazabal jauna eta Iñigo Lamarka Arartekoa (Euskadiko herriaren defendatzailea).

Bizkaian minusbaliotasunaren gaien eskumenak dituzten administrazioen hainbat mailatako ordezkariak bat



datoz FEKOORen gisako elkarteek duten funtzioa azpimarratzean. Elkarrekin horien lana ezinbestekoa da administrazioarekin ezarritako harremanen eremu berrian, Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonen Arreta eta Norbere Autonomiaren Sustapen Legea ezarri zenetik. Elkarrekin lan egiteko beharra ere nabarmendu zuten, gizarte-zerbitzuen sarea (unibertsala, exijitu dezakeguna eta doakoa) abiarazteko; eta, hala, minusbalotasuna duten pertsonen eta haien familien behar guztiei egoki erantzun ahal izango zaie. FEKOOReko Presidente José Antonio Pérezek bere hitzaldian baieztatu zuenez, "taldeak azken urteotan lortutako aurrerapenak poz handiz baina eszeptizismo puntu batez ere hartu dira, guztiona izango den gizartea lortzeko egiteko asko baitago oraindik. Eta gizarte horretan, minusbalotasuna duten pertsonak gainerako herritarren eskubide berak izan beharko dituzte".



ONCE Fundazioko nazioarteko aholkulari Stefan Tromëlek eta CERMIko aholkulari juridiko Oscar Moralek ireki zuten hitzaldien txanda "XXI. mendeko minusbaliotasunaren erronkak" txostenarekin. Ondoren, Espainiako Elbarri Fisikoen Estatuko Konfederazio Koordinatzaileko (COCEMFE) idazkari Roser Romerok eta Koine-Aequalitas Fundazioko presidente eta Alter civitesko zuzendari Victor Bayarrik honi buruz hausnartu zuten: Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonen Arreta eta Norbere Autonomiaren Sustapen Legearen garapenez, eta administrazioaren nahiz hirugarren sektorearen arteko harremanetaz.



Roser Romerok bere hitzaldia hasi zuen esanez, "gaizki deituriko Mendekotasunaren Legea gozoki mingotsa dela; izan ere, duela urte bete onartu zenetik sortutako ikusminaren ostean, orain ikusten da lege horrek zer gabezia dituen eta taldean zer etsipen ari den sortzen". Bere iritziz, lege hori anbizio handikoa da bere helburuetan, baina errealitatearen aurka doa, norbere autonomiaren sustapenaren oinarritzko eskubideak, esate baterako, titulu eta helburuetan bakarrik jasotzen baitira eta, ondoren, garrantzi txikiko zerbaiten antzera jorratzen. Roser Romerok ez du ezer berririk ikusten zerbitzuen katalogoan, eta katalogo hori lehen zeudenak ordenatzera mugatzen da.

"Irisgarritasun Unibertsala eta Guztientzako Diseinua" izenburua zuen antolatutako azkeneko eztabaida-mahaian, gai honetako bi



adituk hartu zuten parte: ELKARTEANeko Raquel Barrosok (Gutxitu Fisikoa duten Pertsonen Euskadiko Konfedererazio Koordinatzailea) eta Design For All Foundation Presidente-Sortzaile Francisc Aragall-ek. Foro horretan aurkeztu zuen FEKOORek "Estrategias FEKOOR: Derechos y Deberes de las Personas con Discapacidad Física" liburua. Testu garrantzitsua da, eta Minusbaliotasun Fisikoa duten Pertsonen buruzko I. Kongresuaren ondorioetan ditu bere aurrekariak: "Hiritar aktiboak eta bizi-kalitatea". Kongresua FEKOORek antolatu zuen Euskalduna Jauregian, 2006ko maiatzean. Cd-card formatuan banatutako dokumentu horrek tresna eta dokumentu eredugarri izatera iritsi nahi du profesionalentzat eta agintari publikoentzat. Horren helburua da

aurrera egin ahal izatea minusbaliotasun fisikoa duten Bizkaiko pertsonen eskubideen sustapenean, aukeren berdintasunean eta bizikalitatean; hau da, gizartearen garapenak berak sortzen dituen eronkei eta aukerei erantzungo zaie.

Bestalde, FEKOORek "Design for All Foundation" (Guztientzako Diseinu Fundazioa) fundazioarekin hitzarmena izenpetu zuen, helburu hau zabaltzeko eta sustatzeko: Pertsona Guztientzako Diseinuaren irizpideak, eta, "The Flag of Towns and Cities for All" (Herrien Bandera eta Guztientzako Hiriak) nazioarteko proiektuaren bitartez, Bizkaiko udalerrietan irisgarritasun unibertsala inplementatzea. Proiektu horren xedea da "Bizkaiko Udalak proiektuan sartzea, eta urtero Bandera lortzea." "Design for All Foundation" nazioarteko fundazio pribatua da, irabazi-asmorik gabea, eta bere helburu nagusia da Design for All (Pertsona Guztientzako Diseinua) honako esparru hauetan garatzea, sustatzea, ikertzea eta zabaltzea: enpresa eta erakunde publiko nahiz pribatuetan, administrazioetan, hezkuntza-eragileetan, eta ingurunea, produktuak eta zerbitzuak aldatzeko parte hartzen duten diseinatzaile profesionaletan, oro har.



FEKOOReko Berdintasunaren Batzordeak Berdintasuna 2007 Saria jaso du

Bizkaiko Foru Aldundiaren eskutik

Bizkaiko Ahalduen Nagusi Jose Luis Bilbao buru zela egin zen Berdintasuna 2007 sariari seigarren edizioa, eta FEKOORen Berdintasunaren Aldeko Emakumearen Batzordea saritu dute aurten, "Aukera Berdintasunari eta Generoari buruzko Programa" proiektuagatik.

Bizkaiko Foru Aldundiak gizon nahiz emakumeen berdintasunaren alde egindako lana saritzen du sari hauekin, hauek egindako lana, hain zuzen: Parekatuz Proiektuan parte-hartzaile diren udalak, irabazi-asmorik gabeko erakundeak, emakumeen elkarteak eta erakunde sozio-ekonomikoak, erakunde politikoak, kultura-erakundeak eta gizarte-erakundeak. Martxoaren 8ko Emakume Langileen Nazioarteko Eguna ospatu aurretik ostegunean Euskalduna Jauregian egin zen ekitaldian, FEKOORek Berdintasuna 2007 Saria jaso zuen "Aukera Berdintasunari eta Generoari buruzko Programa" proiektuagatik; "Emakumea Berdintasunaren Alde" izeneko batzordeak sustatutako proiektuagatik, alegia.

Aukera-berdintasunaren eta genero-politiken gainean erakundeek egindako proiektuei eta jardueri ematen zaizkie Berdintasuna 2007 sariak, maila hauetan: Bizkaiko Lurralde Historikoan 5.000 biztanle baino gutxiagoko Udalak, Bizkaiko Lurralde Historikoko emakumeen elkarteak; irabazi-asmorik gabeko erakundeak, eta Parekatuz sarearen barnean proiektuak egiten dituzten erakunde politikoak eta kultura-erakundeak. Sariketa antolatzen da, halaber, gizarteak eta botere-publikoek duten erantzukizunaz sensibiltzatzeko, eta erreferenteak nahiz jarraitu beharreko ekintzak erakusteko.

Aurtengo edizioan, zeharkako proiektuak azpimarratu nahi izan dira; horrela, Bizkaiko eragile ekonomiko, sozial, politiko eta kultural guztien parte-hartzea ziurtatu nahi izan da. Ekimen hori helburu honen barruan sartzen da: "Emakumeen eskubideen berri ematea, aukera-berdintasuna, Bizkaiko emakumeen eta gizonen arteko Aukera Berdintasunerako Foru Plana, eta horiekin batera, gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasunari buruzko beste plan eta araudiak." Helburu hori, hain zuzen, Parte Hartze Sozialerako alorraren barnean ezartzen du Foru Planak, eta gai horretan erakunde jakin batzuek egindako lana azpimarratzen eta saritzen du. Saritutako erakundeen artean, FEKOOR egoteaz gain, Zierbenako Udala, Berrizko Gure Izarrak Elkarte eta Portugaleteko Repelegako IEFPS daude.

FEKOORen Berdintasunaren Aldeko Emakumearen Batzordea, duela zazpi urte eratua, lan handia egitean ari da minusbaliotasuna duten emakumeek jasaten duten baztertze bikoitzaren gainean hausnartzeko, eztabaidatzeko eta kontzientzia hartzeko; izan ere, emakumeak dira batetik, eta minusbaliotasuna duten pertsonak bestetik. Batzordeak lan egiten du minusbaliotasuna duen emakumearen egoera politika publikoan, emakumeen mugimenduen eta iritzi publikoaren lehentasunezko gaien artean sar dadin eta, halaber, lehentasunezko gaitzat har dezaten nola gure Federazioan bertan, hala batzordearen elkarre federatuetan. Hala, lan egiten du genero-ikuspegia bigarren mailan gera ez dadin, eta minusbaliotasunaren diskurtsoan

desagerraraz daitezen minusbaliotasuna duten gizonen eta emakumeen arteko benetako aldeak.

FEKOORekin edo bere elkarte federatuekin lotuta dauden Bizkaiko 3.000 emakume ordezkatzeko jaio zen, eta hasieratik bokazio hau izan du: ordezkaritza horren bitartez, minusbaliotasun fisikoa duten Bizkaiko emakume guztien ahotsa izatea, edozein izanda ere emakumezko horien adina (umeak edo nagusiak), arraza, erlijioa, sexu-izaera edo jatorria. Biztanleen sektore esanguratsu batez ari gara, are gehiago bakarrik bizi eta gutxi mugitzeko arazoak dituzten emakumeen kopuru handiari begiratzan badiogu. Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna: 1908an, New Yorkeko ehun-lantegi batean izandako sutean, 129 emakumeren heriotzaren ostean, Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna ezarri zen; lan-eskubideen berdintasuna eskatzeko giltzapean

sartuta zeuden. Martxoaren 8ak gertaera hura ekartzen du gogora, eta horrekin emakumeen eskubide politikoen, sozialen eta lan-eskubideen aldeko borroka gogoratu eta sustatu nahi da. Emakumeen eskubideen alde lan egiten duten elkarte eta erakundeek, horien artean FEKOOReko Berdintasunaren aldeko Emakumearen Batzordeak, zenbait ekitaldi antolatu dituzte Bilbaon. Ekitaldiok antolatu dira agerian uzteko gizartean gaur egun oraindik ere alde handiak daudela gizon eta emakumeen artean. Alde horien puntu ilunena emakumeek jasaten duten indarkeria da, eta horren ondorioz emakume asko hiltzen dira urtero. XXI. mendean bete-betean bizi garen honetan, egoera jasangaitza da, eta biztanleen erdien oinarritzko eskubideak ezerezean uzten dituen gaitz honekin amaitzeko, ezinbestekoa da gizartearen eta erakundeen konpromisoa.

Batzordeari buruzko informazio gehiagorako edo bertan parte hartzeko:

<http://www.fekoor.com/mujeres.php>

<http://comisiondemujerfekoor.blogspot.com/>



Berdintasunaren Aldeko Emakumearen Batzordeko zenbait kide.

Euskadiko Slalom Txapelketa eta Espainiako Autonomia Erkidegoen arteko Boccia Txapelketa

Slalom-txapelketa iragan otsailaren 14an jokatu zen Barakaldoko pilotalekuan. FEKOOR Kirol Elkarteko Richard Pascua lehen postuan sailkatu zen zailtasun handiko esku-aulkien mailan (D3). Boccia-txapelketa ostegunean, hilaren 20an, jokatu zen Iruñean, eta FEKOOReko taldeak bere maila erakutsi zuen, partida guztiak irabazi ondoren, hurrengo kanporaketa jokatzeko txartela eskuratu baitzuen.

A.D. FEKOOReko Slalomeko taldea

Kirol Egokituko Bizkaiko eta Euskadiko Federazioak eta FEKOOR Kirol Elkarreak antolatu zuten Euskadiko Slalom Txapelketa; Gasteiz eta Nafarroako Aspace eta Donostiako Dordoka elkartearen parte-hartzea ere izan zuen. Kirol honetan araututako bost modalitateetan egin zen

txapelketa: D1 (gurpil-aulki elektrikoak), D2 (zailtasun ertaineko esku-aulkiak), D3 (zailtasun handiko eta oinekin erabiltzen diren esku-aulkiak), D4 (zailtasun txikiko esku-aulkiak), D5 (zailtasunik gabeko esku-aulkiak).



Goizean, araututako zirkuituan jokatu zen txapelketa, eta arratsaldean, berriz, zirkuitu aldakorrean egin zen, araudian agertzen diren 44 zirkuitu posibleetatik bat aukeratu eta gero. Maila guztietan, Dordoka eta Nafarroako Aspaceko taldeak nagusitu ziren. Ia sari guztiak eskuratuta, maila bikaina dutela erakutsi zuten. Nolanahi ere, FEKOOR Kirol Elkarteko Richard Pascuak bere mailan aurkaririk ez duela argi utzi zuen. D3 kategorian lehen postua lortu zuen, zailtasun handiko esku-aulkietan, alegia.



BOCCIA

FEKOOR Kirol Elkarteko bocciako taldearentzat ere ez doaz gauzak gaizki, modalitate honetan probintzia arteko txapelketako aurretiko fasean lan ona egin baitzuen. Rosa Rebollok eta Iñaki Mentxakak BC4 mailako partida guztiak irabazi zituzten eta, horri esker, kanporaketetako final-erdietarako txartela lortu dute.

Txapelketako final-erdiak maiatzean jokatu dira Gasteizen, eta taldeak maila ona eskuratu duenez, emaitza onak izatea espero da. Halako maila lortu du, selekzioen arteko Espainiako txapelketa jokatzeko deitu baitute FEKOOREko bocciako taldea. Txapelketa hori Cáceresen izango da, martxoaren 6tik 9ra.



HARRERA ONA IZAN DUTE FEKOOR-EN ON LINE PRESTAKUNTZA-IKASTAROEK

online

Fekoor-en on line prestakuntzaren lehen deialdia abian jartzeak ikastaroen zehazpen jakinetara egokitutako plataformaren diseinua ekarri du. Eskola birtualerako metodologia eta irisgarritasuna zaindu dira batez ere, eta lan-merkatura heltzeko baldintzak hobetzea sustatu dira une oro.

Prestakuntzako doako eskaintza hau FEKOOREkin lotura duen edonorentzat ez ezik, lanean hasteko bere baldintzak hobetu nahi dituenarentzat ere bada. Oro har, parte-hartzaileek harrera ona egin diote ikastaroari, eta oso ondo baloratu da erakunde batzuek antolatutako presentziatzko ikastaroetan parte hartu ezin dutenei prestakuntza hori hurbiltzeko ideia izatea; hau da, hainbat arrazoiengatik joaterik ez dutenei prestakuntza hurbiltzea.

Ikasleek ondo baloratu dute prestakuntzan teknologia erabiltzea, pertsonaren ikasketa-prozesua nabarmen errazteko eta sustatzeko. Hala, aipatutako sistemek dituzten erabileren alderdi interaktiboenei esker, alor hauetan oinarritutako dinamika pedagogiko eta metodologikoak eskaintzen ditu: lankidetzan, komunikazioan eta

informazio-baliabide kopuru izugarri batera iristeko aukeran.

Ikastaro hauen helburua elkartekoei nahiz langileei kalitatezko prestakuntza ematea da. Horretarako, irakaskuntza-gunea eskainiko zaie antolatzen diren presentziatzko ikastaroetan parte hartu ezin dutenei; alegia, lanagatik, urrun-tasanagatik eta abarregatik joan ezin dutenei.

Gaur egun, lan-merkatuak ematen dizkigun aukerek zera eskatzen digute: lan-merkatura sartzeko egokierak hobetzea, horretarako ezagutzak eguneratuz eta prestakuntzaz baliatuz. Prestakuntza funtsezkoa da garapen profesionalerako, eta zer hobeagorik hori on line prestakuntzaren bitartez egitea baino; jende gehiagorengana heltzen laguntzen du gainera. Internet bidezko on line prestakuntzari esker, ikastaroak edozein lekutatik eta ordutegi librean egin daitezke, eta prestakuntza-katalogo zabala eskaintzen du, gainera. Horrelako prestakuntza jasotzeko, informatika-ekipoa –Internet duena– eta ikasteko gogoia besterik ez dira behar.

GIPUZKOAKO GARRAIO PUBLIKOAREN

irisgarritasunari buruzko azterketa

ELKARTUK azterketa bat egin du, (GIZLOGA) Gipuzkoako garraio eta logistikaren garapenerako herritarren eta enpresarien foroaren barruan, eta (ITC) Garraioa, Merkataritza eta Marketinaren Fundazioarekin lankidetzan estuan, mugikortasuna murriztua duten pertsonen kolektiboarentzat Gipuzkoako garraio publikoaren irisgarritasunei buruzko diagnostia egitea xede duena.

Era horretan, egoeraren argazki bat eta testuinguru objektibo bat eman nahi izan zaie erakundeetako eta enpresetako arduradunei, garraio publikoaren esparruan, ezintasuna duten pertsonen aukera-berdintasuna ekarriko duten politika, programa eta jarduerak abian jar ditzaten.

Hona hemen azterketak proposaturiko **helburu espezifikoak**:

- ▶ Irisgarritasunari buruzko gaian Gipuzkoako garraio publikoaren sistemak dituen gabeziak eta akatsak identifikatzea.
- ▶ Lehentasunezko jarduera-plan bat finkatzea, kostuak eta oztupoak zehaztuz.
- ▶ Herritar guztiek baldintza eta aukera berdinetan erabil dezaketen garraio publiko baten beharraz kontzientziaztea, erakunde-, enpresa- nahiz zizarte-mailan.

Irisgarritasunari buruzko diagnostikoa horretako garraio publikoak abiapuntua eta/edo helmuga

Gipuzkoan izango luke, eta erabilera erregularra eta arruntekoa izango litzateke gehienbat; hala ere, auto-taxia, zerbitzu berezikoa bada ere, azterketaren barruan sartzen da, mugikortasuna murriztua duten kolektiboarentzat garrantzi handikoa baita. Zerbitzuak emateko azpiegiturak nahiz ibilgailuak aztertzen dira, garraio-modu hauetarako:

- Trenbideko garraioa
- Aireko garraioa
- Errepideko garraioa

Lan-**metodologiari** dagokionez, esan dezagun, lehendabizi, Gipuzkoako garraio publikoaren irisgarritasun-baldintzen marko juridikoa finkatu dela, eta betekizunak zehaztu direla, bai ibilgailuenak bai garraio-zerbitzuen azpiegitura eta ekipamenduenak.

Ondoren, eta diagnosirako erreferentziazko tresna gisa, garraio-enpresetako ordezkariari egin zaizkien inkestak erabili dira, baita lekuan bertan egindako oharrek ere. Horretarako, bakoitzari zegokion auditoriako fitxa egin zen, aztertu beharreko ekipamendu eta garraiorako ibilgailu-mota bakoitzeko bat, baita garraio-operadorearentzat galdeketa-ereduak ere, kontuan hartutako garraio-bide bakoitzeko bat.

Horrenbestez, baliabide horiekin **azterketa hauek egin dira**:

- *Kanpoko irisgarritasuna*; hau da, kalea eta garraio-ekipamenduaren arteko ibilbide erabilgarria (tren-geltokia, geralekua, aire-geltokia edo autobus-geltokia).
- *Barneko irisgarritasuna*; hau da, ekipamenduaren barneko joan-etorria eta garraiorako ibilgailura iristea.
- *Garraio-baldintzak ibilgailuaren barnean*; hau da, bidaia egiterakoan bidaiari guztien erosotasuna, segurtasuna eta erraztasuna, baita mugikortasun murriztua dutenena ere.

Guztira 887 autobus-geltoki aztertu dira, Gipuzkoako % 50 gutxi gorabehera, baita hainbat tren-geltoki ere (eskumen estatala nahiz erkidegokoa dutenena, eta aldiriko zerbitzua nahiz eskualdekakoa dutenena), Hondarribia-Donostiako aireportua, Donostiako autobus-geltokia eta hainbat ibilgailuren ezaugarri teknikoak (autobusa, trena, hegazkina eta taxia).

Azterketa-diagnosi horren emaitzen bidez, hainbat **gabezia eta ondorio** atera dira, Gipuzkoako garraio publikoaren irisgarritasunean hobekuntzak egiteko baliagarriak. Ondoren, ondorio garrantzikoenen berri emango dugu:

- **Trenbideko garraioari** dagokionez, bi esparru bereiz daitezke:

a) Estatuaren eskumeneko zerbitzuak:

Ez dago zalantzarik. Gaur egun, Donostiako aldirietako trenbide-zerbitzuetarako irisgarritasunaren auziari heltzeak zera dakar: mugikortasun murriztuko erabiltzaileari trenerako sarrera autonomo eta segurua ziurtatzea guztiz ezinezkoa da, nasaren etza eta ibilgailuaren artean dagoen tarteagatik batez ere, eta nasaren eta garraio-unitatearen plataformaren artean dagoen desnibela dela-eta. Hala,

Donostiako aldirietako geltoki eta geralekuek, oro har, irisgarritasun-baldintza kaxkarrak dituzte. Hori gutxi balitz, trenera sartzeko baldintza normalizatuak dituzten geltoki askotan, mugikortasun murriztua duten erabiltzaile askok zailtasun handiak izango lituzkete beren kabuz nasara iristeko. Aztertutako geltoki guztietatik irisgarritasun-baldintza eska-sengatik deigarri gertatzen dira bereziki Tolosa hiriguneko, Herrerako eta Pasaiaiko ekipamenduak. Irisgarritasunik gabeko geltoki horietan bertan badira, bestalde, erreferentziazko hainbat geltoki eta geraleku ere, moldaketak orientatzeko orduan jarraibide izan beharko luketenak, hala nola Irun eta Donostiako geltokiak (iparraldekoa) eta Gros eta Loiolako geralekuak (biak ere Donostiako udalerrian).



b) EAEren eskumeneko zerbitzuak:

Oro har, esan liteke, zenbait geltokitan izan ezik, ETS/EUSKALTREN trenbide-sareko irisgarritasun-baldintzak Gipuzkoan, batez beste, ona dela. Alabaina, mugikortasun murriztua duen kolektiboarentzat guztiz iritsi ezinak dira lau geltoki: Ardantza, Eibarren; Azitain, Eibarren; Altzolan, Arroan eta Gaintxurizketan. Beste batzuetan, berriz, (Oihartzun, Deba, Aia-Orio eta Añorgan, adibidez) premiazkoa da irisgarritasun-baldintzak

hobetzea. Bestalde, Lugaritz, Anoeta eta Donostiako Loiola, Lasarte-Oria, Galtzaraborda (Errenteria) eta Fikobakoak (Irun) erreferentziazko ekipamenduak dituzte barrerarik gabeko mugikortasunari dagokionez.

Halaber, esan dezagun, oro har handicapik handiena nasaren eta trenaren artean dagoen tartea (garaiera-zabalerak) sortzen duela; kontuan hartzen den geltoki-motaren (nasen) eta plataformaren garaieran eragina duten unitatearen ezaugarri berezien arabera (pisua eta gurpilen higadura) aldatzen dena, bestalde. Gai hau bereziki ari da aztertzen ETS/EUSKOTREN.

- **Aireko garraioa:** esan dezagun irisgarritasun-baldintzen maila ona dela aireportuetako agintaritzak eta hegazkin-konpainiek hegaldizikloaren fase guztietan (hasi aireportuko parkingetik eta hegazkinean sartzeraino, eta hegazkinetik jaitsi eta instalazioetatik irten bitarteko guztian) mugikortasun murriztua duten pertsonen laguntzeko konpromisoari dagokionez. Alabaina, Hondarribia-Donostiako aireportuaren azpiegiturak hirigunetik urrun samar daudenez, ibilgailu motordunak behar ditu bertara sartzeko (autobusa eta taxia), horregatik irisgarritasun-baldintzetan hobekuntzak beharko lirateke.
- **Errepideko garraioari** dagokionez eta, zehatzago esanda, autobus-zerbitzuei dagokienez (hiri barrukoak, hiriartekoak eta ibilbide luzekoak) aipa dezagun beren ibilgailuetan pixkanaka zoru baxuko autobusak sartzeko joateak funtsezko hobekuntzak ekarri dituela bidaiarientzat irisgarritasun-baldintzetan, hiri barruko eta hiriartekoetan, batez ere. Sarritan, ordea, ekipamenduak, autobus-geltokiak eta garraio publikoaren



geltokiak direla-eta, erabiltzaile guztiei ez zaie irisgarritasun osoa eskaintzen, bai kanpoan erabil daitekeen ibilbiderik ez dutelako, bai garraio-zerbitzura sartzeko autonomia guztiz ziurtatu gabe dagoelako.

Bestalde, taxi-ibilgailuari dagokionez, azterketatik atera litekeen ondorioaren arabera, udalerrri hauek betetzen dute udalerriko biztanleriari eta dauden lizentzia-kopuruari dagokion ibilgailu egokituaren kopuruari buruz legeak agintzen duena: Donostia, Eibar, Bergara, Astigarraga, Deba, Elgoibar, Tolosa, Azpeitia eta Orio dira.

Laburbilduz, ELKARTUren iritziz, egindako azterketa-diagnosi hau oinarritzko tresna da esparru honetan parte hartuko duten eragileek beharrezko neurriak hartzeko, herritar guztiak balia daitezen, baldintza eta aukera berberetan, Gipuzkoako lurralde historikoko garraio publikoaz.

AUTOBUSAK ERABERRITZEKO ETA MODERNIZATZEKO,

eta geltokietan egokitzapenak egiteko laguntzak

Maiatzaren 6an argitaratu ziren laguntzak arautuko dituen oinarriak, alde batetik, bidaiarien errepideko garraio publikoko zerbitzu erregularretan diharduten autobusak eraberritzeko eta modernizatzeko, eta bestetik, zerbitzu erregularretako autobus-geltokien egokitzapenak egiteko.

Hona hemen laguntza horien xedea:

- ▶ Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumeneko den errepideko bidaiarien garraio publikora atxikitako kontzesionarioetako autobusak eraberritzea, eta behar izanez gero, haien ordez, errepideko garraio publikoetako matrikulazio berriko beste batzuk jartzea, Ibilgailuen Azterketa Teknikoak ezarritako arau eta baldintzak, nahiz mugikortasun murriztua duten pertsonen garraibide horretarako irisgarritasun-arauak betetzen dituztenak.

- ▶ Zerbitzu erregularrera atxikitako autobusetan nahiz enpresa kontzesionarioetakoetan, behar diren ekipamendu informatikoak eta dagozkien programak erostea, nola txartelak egiteko, hala Txartel Bakarreko garraio-tituluak ezeztatze sistemarako.
- ▶ Erabiltzaile guztientzat balioko duten aterpe erosoak jartzea.
- ▶ Bazterbideak eraikitzea.

Oinarrietan, laguntza honi buruzko informazio guztia biltzen da (diru-laguntza jaso dezaketen kontzeptuak, onuradunak, gehiengo zenbatekoa, beharrezko agiriak, epeak, etab.).

ELKARTUtik laguntza hauen berri eman nahi diegu, nola erabilera orokorreko errepideko bidaiarien garraio publikoko zerbitzu erregularretako enpresa kontzesionarioei, hala gure lurraldeko udalei.



Elkartze- mugimendua

ELKARTUK martxoaren 1ean egin zuen ohiko batzar nagusia Eibarren. Untzagako zahar-etxeko lokaletan egin zen ekitaldi honetara, federazioaren barruan dauden elkarte guztiak bildu ziren, eta gai hauek landu ziren:

- ▶ Federazioaren 2007ko jardueren txostena eta balantze ekonomikoa.
- ▶ Elkarten 2007ko jardueren txostena eta balantze ekonomikoak.
- ▶ ELKARTUren zuzendaritza-batzorderako elkarteetako ordezkarien izendapenak eta karguak izendatzea.
- ▶ ELKARTEAN elkarteetako ordezkariak proposatzea.

Batzarraren ondoren, han bildutakoek bazkari bat egin zuten, esperientzien berri elkarriz eman eta federazioa osatzen duten elkarten ezagupenetan sakonduz jarraitzeko.

Federazioan partaide diren elkarteek ospatutako egunak ere aipatu nahi ditugu:

- Parkinsonaren Nazioarteko Eguna, apirilak 11. ASPARGIk (Gipuzkoako Parkinson Elkarte) hainbat hitzaldi eta jarduera antolatzen ditu

Parkinsonen gaixotasuna dutenei, beren familiei eta oro har elkarteari zuzenduak.

- Fibromialgiaren Nazioarteko Eguna, maiatzak 12. BIZI BIDEk (Gipuzkoako Fibromialgia eta Astenia Kronikoaren Elkarte) hainbat informazio-jarduera antolatzen ditu.
- Epilepsiaren Nazioarteko Eguna, maiatzaren 24an. EGEk (Epilepsiaren Gipuzkoako Elkarte) zenbait hitzaldi eta jardueren bidez epilepsia duten pertsonen errealitatearen berri eman zuen.

Bestalde, Hernanin sortu berria den Koxka izeneko elkarteari buruzko informazioa ere eman nahi dugu. Elkarte horren xedea da udaletik sustatzen diren partaidetzako organoetan udalerrian diren ezinduen ordezkari izatea, eta oro har, kolektibo horren bizi-kalitatearen hobekuntza abiaraztea. Elkarte honen egoitza Hernaniko Biteri Kultur Etxean dago. Eta parte hartu nahi duen edozein pertsona, lankide izateko edo besterik gabe elkartearekin harremanetan jartzeko, helbide honen bidez jar daiteke harremanetan:


koxka-elkartea@hotmail.es



Ordezkaritza-jarduera

ELKARTUK ezintasun fisikoa duten kolektiboaren ordezkaritza-lanetan jarraitzen du hainbat organotan eta partaidetza sozialeko forotan. Ondoren, azken hilabeteetako parte-hartze nagusiak azalduko ditugu:

- ▶ Gipuzkoako Ezinduekin Kontseiluan; han bildutakoen parte-hartzea aktiboa izan zen, bai maiatzaren 6an egindako osoko bilkuran, bai eratu ziren hiru kontseiluetan (Gipuzkoako Ezinduen Plan Estrategikoaren Jarraipenerako Batzordea; Mendekotasunaren Legea; Gizarte Zerbitzuetarako Legea).
- ▶ Donostiako Udaleko Gizarte Ongizateko Kontseiluan, otsailaren 26an egindako osoko bilkuran, nahiz apirilaren 21ean egindako Ezinduen Kontseiluan.
- ▶ Donostiako Udaleko Gizarte Kontseiluan (apirilak 23), ELKARTU osoko bilkuran eskubide osoko kide delarik.
- ▶ Irungo Udal Plangintzarako Aholku Kontseiluan, apirilaren 28an eta maiatzaren 6an egin ziren bileretan, Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren Berrikuspenarako espedienteari egindako ekarpenak aztertu eta burutzeko.
- ▶ Irungo Gizarte Ongizateko Aholkularitza Kontseiluan, apirilaren 16an egindako bileran.
- ▶ Apirilaren 22an egin zen (GIZLOGA) Gipuzkoako garraio eta logistika garatzeko herritarren eta enpresen foroan aurkeztu zen mugikortasun murriztua duten pertsonentzat Gipuzkoako garraio publikoetakoaren irisgarritasunari buruzko azterketa-diagnosia.



Guztietan landu dira ezintasuna duten pertsonen eskubideetan eta bizikalitatean eragin erabakigarriak izango dituzten gaiak (irisgarritasuna, mendekotasun-egoeran laguntzeko zerbitzuak eta prestazioak, gizarte zerbitzuak, etab.).

OPORRETARAKO PROGRAMA

ELKARTUK, aurten ere, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako Departamenduaren lankidetzan ezintasun fisikoa eta entzumen-urritasuna duten pertsonentzat

Oporretarako Programa antolatatu du, bestela oporrik izango ez luketen haientzat, alegia.

NORAKOAK	TXANDAK	DATAK
BENIDORM	1.a	maiatzaren 3tik 17ra
BENIDORM	2.a	ekainaren 3tik 17ra
SALOU	1.a	ekainaren 21etik uztailaren 4ra
SALOU	2.a	uztailaren 5etik 19ra
PRAGA-BUDAPEST	-	abuztuaren 11tik 18ra
BENIDORM	3.a	abuztuaren 17tik 31ra
MALLORCA	-	irailaren 14tik 28ra
TENERIFE	-	urriaren 2tik 16ra
BENIDORM	4.a	urriaren 18tik azaroaren 1era
ZARAGOZAKO EXPORA BISITA	1.a	uztailaren 20tik 22ra
ZARAGOZAKO EXPORA BISITA	2.a	abuztuaren 3tik 5era



Joan-etorriek, hoteletako egonaldiek eta egin daitezkeen beste jarduerak irisgarritasun-baldintzak betetzen dituzte, eta kasu bakoitzean behar diren babes-laguntzez hornituta daude.

Programan parte hartuko duten pertsona guztien itxaropenak betetzea espero dugu, hots, ezintasuna duten pertsona guztienak nahiz haien laguntzaileenak.